

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

EGOKITZE-ALDIAREN BIZIPENA GURASO ETA IRAKASLEEN IKUSPEGITIK

Egilea: Ane Miren Sánchez Sánchez

Zuzendaria: Iratxe Redondo Rodríguez

Leioan, 2022ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	1
1. Marko Teorikoa.....	1
1.1. Zer da egokitze-aldia.....	2
1.2. Egokitze-aldiaren garrantzia.....	3
1.3. Haurrak bizi dituen emozioak.....	4
1.4. Gurasoen bizipenek, jarrerak eta heziketa-estiloek duten eragina.....	5
1.5. Irakaslearen rola.....	8
1.6. Egokitze-aldiaren antolaketa.....	9
1.7. Prozesua errazteko jarraibideak.....	10
1.8. COVID-19 egoeraren eragina egokitze-aldian.....	12
2. Helburu eta Hipotesiak.....	13
2.1. Gurasoei zuzendutako inkestari lotutako helburu/hipotesiak.....	13
2.2. Hezitzaileei zuzendutako elkarrizketekin lotutako helburu/hipotesiak.....	13
3. Metodologia.....	14
3.1. Laginaren deskribapena.....	14
3.2. Instrumentuak.....	15
3.3. Prozedura.....	15
4. Emaitzak.....	16
4.1. Gurasoei zuzendutako inkestaren emaitzak.....	16
4.2. Irakasleei zuzendutako elkarrizketaren emaitzak.....	18
5. Ondorioak.....	21
6. Etika profesionala eta datuen babesa.....	24
7. Bibliografia.....	25
Eranskinak.....	29
I. Eranskina: Gurasoei zuzendutako inkestaren galderak.....	29
II. Eranskina: Irakasleei zuzendutako elkarrizketaren galderak.....	31
III. Eranskina: Inkestaren grafikoak.....	32
IV. Eranskina: Taula eskola ezezaguna eta gutxiegi inplikazioaren eraginak.....	38
V. Eranskina: Elkarrizketen transkripzioak.....	39
Lehenengo Elkarrizketa.....	39
Bigarren Elkarrizketa.....	42
Hirugarren Elkarrizketa.....	44
Lauugarren Elkarrizketa.....	47
Bosgarren Elkarrizketa.....	50
Seigarren Elkarrizketa.....	53
Zazpigarren Elkarrizketa.....	56

EGOKITZE-ALDIAREN BIZIPENA GURASO ETA IRAKASLEEN IKUSPEGITIK

Ane Miren Sánchez Sánchez

UPV/EHU

GrAL honen bidez, gurasoek egokitze-aldiari buruz duten jarrera, inplikazioa eta asebetetze maila analizatu, bizi dituzten sentipenak/bizipenak ikertu eta COVID-19 egoerak haurren egokitzapenean izan duen eragin posiblea aztertzearekin batera, irakasleek egokitze-aldiari ematen dioten garrantzia, horri eskainitako tartea eta ager daitezkeen zailtasunak analizatu egin dira. Horretarako, 70 gurasok galdetegi bat bete zuten eta 7 irakasle elkarrizketatu ziren. Ateratako ondorioak gurasoek jarrera/ bizipen positiboagoak adierazten dituztela nahi beste inplikazio izan dutenean; COVID egoerak izandako ondorioak latzagozat jotzen dituztela irakasleek gurasoek baino; eta irakasleek egokitze-aldia garrantzitsua dela esan arren, egutegiak zehaztutako denbora baino ez diotela ematen izan dira.

Egokitze-aldia, gurasoak, irakasleak, parte hartzea, sentimenduak, COVID

Con este TFG, se analiza la actitud, implicación y satisfacción de los padres respecto al periodo de adaptación, las sensaciones/vivencias que experimentan y el posible impacto de la COVID-19 en la adaptación de los niños y niñas, al igual que la importancia que el profesorado otorga al periodo de adaptación, el tiempo dedicado al mismo y las dificultades que pueden aparecer. Para ello, 70 padres y madres rellenaron una encuesta y se entrevistaron 7 profesores. Las conclusiones extraídas son que los padres y madres expresan actitudes/vivencias más positivas cuando han tenido el nivel de implicación deseado; que los profesores/as consideran más severas las consecuencias de la situación de COVID que los padres/madres; y que aunque el profesorado diga que el periodo de adaptación es importante, le otorgan sólo el tiempo que marca el calendario.

Periodo de adaptación, padres, profesores, participación, sentimientos, COVID

This GRAL analyzes parents' attitude, involvement and satisfaction with the adaptation period, the sensations/experiences they experience, and the possible impact of COVID-19 in children's adaptation. Also, the importance teachers attribute to the adaptation period, the time span they dedicate to it and the difficulties that may appear. For this purpose, 70 fathers and mothers completed a questionnaire and 7 teachers were interviewed. The conclusions revealed that parents express more positive attitudes/experiences when they have had the desired level of implication, that teachers consider the consequences of the COVID situation more severe than parents, and that although teachers say that the adaptation period is important, they give it only the time it marks the calendar.

Adaptation period, parents, teachers, participation, feelings, COVID

Sarrera

Lan honen bidez, egokitze-aldiaren inguruko ikerketa gauzatu da, baina, oraingoan, irakasleen eta gurasoen ikuspuntutik edota iritzietatik abiatuz. Ikerketa honi esker, gurasoek zein hezitzaileek egokitze-aldiari ematen dioten garrantzia, epe hau nola bizi duten, ikasleengan nabaritzen dituzten zailtasunak eta berria den COVID-19 egoeraren eragina ikertu dira. Izan ere, askotan prozesu hau umeen bizipenetatik aztertu izan da, eta beste errealitate horiek aztertzea ere garrantzitsua da. Era berean, berria den pandemia egoeraren ondorioak egokitze-aldian izandako eragina ezagutzea ere funtsezkoa da.

Ikerlan hau aurrera eramateko, lehenik eta behin marko teoriko bat osatu da, ostean zenbait helburu eta hipotesi planteatu, eta jarraian, metodologia mistoaz baliatuz, emaitzak eta ondorioak atera dira. Zehazki, elkarrizketak (hezitzaileekin) eta inkestak (gurasoekin) aurrera eraman dira.

Emaitzek adierazi dutenez, gurasoek egokitze-aldia epe garrantzitsutzat jotzen dute eta eskolarekiko konfiantza handiagoa izan ahala hobeto bizi dute prozesu hau, eta baita hurrek ere; izatez, guraso eta seme-alaben sentimenduak parekoak izan ohi dira. Bestalde, orokorrean, hezitzaileek egokitzapena garrantzitsua dela aitortu arren, bakarrik egutegiak zehaztutako denbora eskaintzen diote eta batzuek aste batekin nahikoa litzatekela aipatu dute, aldi honek hurrengan duen garrantzia ez dutela ulertzen erakutsiz. Alabaina, irakasleek epe honetan gurasoekiko harremana funtsezkoa dela adierazi dute, nahiz eta gehiengoak aitak edo amak gelan sartzeari ez gomendatu. Azkenik, guraso eta hezitzaileen artean COVIDak izandako eraginaren inguruko iritzia ezberdina dela agerian geratu da; izan ere, lehenengoen egoera berri horrek ez duela eraginik izan uste dute eta bigarrenek, bai harreman sozialen alderdian zein hizkuntzaren alorrean aldaketak sumatu dituztela baieztatu dute.

1. Marko Teorikoa

Haur Hezkuntzaren historia nahiko berria da Espainian, XIX. mendean hasi baitzen. Egiatan, denbora asko behar izan du hezkuntza-sistema orokorrean sartzeko, nahiz eta garai guztietako pedagogoen bizitzaren hasieratik jasotako hezkuntzaren garrantzia ikusi zuten, izatez, garapen pertsonaleko prozesua markatzen du. Espainiako hezkuntza-sistemak zero eta sei urte bitarteko hurrei dagokien hezkuntzari Haur Hezkuntza deritza (Álvarez eta Jurado, 2018).

Eskola haurrentzat testuinguru berri eta ezezaguna denez, egokitzapen prozesu bat bizi beharko dute errealitate berri horretara moldatzeko, bereziki, Haur Hezkuntzan. Hori dela kausa, Haur Hezkuntzako curriculumak (2016) hurrengoia zehazten du: “Haurrak pixkanaka sartuko dira lehen aldiz ikastetxean, eta egokitze-aldi bat ezarriko da. Egokitze-aldi horren helburua da etxearen eta eskolaren arteko zubiarena egitea, eta haurrak apurka-apurka egokitzea eskolara” (10 or.).

1.1. Zer da egokitze-aldia

Egokitze-aldiaren inguruan mintzatzen diren autore ugari aurkitzen ditugu eta bakoitzak aldi hau ezberdin definitzen du.

Hasteko, Gervillak (2016) egokitze-aldia haurrak plano afektibotik bizi behar duen ibilbide edo prozesu batekin alderatzen du. Era berean, banatzeak dakarren galera eta irabazia onartu behar dituela dio, bukaeran bere borondatez errealitate berri horren barne-onarpenera iritsi arte.

Bestalde, Rodriguezek (2009) bere esperientzian oinarriturik egokitze-aldia lehen aldiz ikastetxe batean sartzen den subjektu batek behar duen denboratzat jotzen du. Honek azpimarratzen du prozesu hau ez dela bakarrik hiru urteko haurrak bizi duten zerbait, baizik eta ikastetxe berri batean eskolatzen diren ikasle guztiek, taldearekin integratu, taldean eta eskolan gozatu, haien sentimenduak, emozioak eta beldurrak adierazi, eta edozein unetan eskolaren magia aurkitzeko gai diren arte igaro egiten den denboratzat jotzen du.

Ortiz (2008) sakonago barneratzen da eta hurrengoia aipatzen du: lehen aldiz eskolan sartzen direnentzat, haurren eta familiaren arteko lehen bereizketa da, hau da, arreta-zentroa den eta beti pertsona berekin erlazionatzen den testuingurutik (familia), ingurune berri batera igarotzen da. Azken honetan, irakaslearekin eta haren berdinekin harremanak izango ditu eta horrek familian bizi ez duen lehiakortasun-sentimendua eragin diezaioke, baita objektuak eta espazioak partekatzen ikasi behar du. Honengatik guztiagatik, umeak egoera horretara ahalik eta hoberen egokitu behar da, etorkizunean izango dituen jarreretan eta egoeretan eraginik ez izateko. Gainera, haurrak banantze hori galtze edo abandonu gisa senti dezakeela kontuan izango dugu, eta, beraz, normala da larrituta sentitzea, geroago bera jasotzera joango direla ikasi arte. Azkenik, autore honek aipatzen du gerta daitekeela haurrak lehenengo egunetan oso harrera ona izatea

jostailuen, haurren eta espazio berrien berritasunaren aurrean, baina lehenengo astearen ostean, ume horrek eskolan dituen bizikidetzeta- eta gaitasun-arazoak baloratzean, etxean duen pribilegio-egoera nahiago izatea.

1.2. Egokitze-aldiaren garrantzia

Leónen (2009) arabera, umeak egokitze-aldia asimilatzeke duen moduak eskolatze osoan zehar eragina izango du. Hau da, autore honen aburuz, eskolarekiko, han garatzen diren gizarte-harremanekiko eta ikaskuntzekiko jarrera prozesu hau bereganatzen duten moduaren arabera (positiboa edo negatiboa) izango da. Hortaz, egokitze-aldia egokia izatea hezitzaileen eta gurasoen ardura izango dela dio.

Izan ere, haurra Haur Eskolara egokitzeak ahalegin pertsonal handia eskatzen du, egiatan, umea seguru eta babestuta sentitzen da familia testuinguruan zeregin edo rol jakin bat duelako, eta eskola den testuinguru berria askoz kontrolaezin, zabal eta estimulatuzaileagoa da. Gainera, azken honetan, harremanak, arauak, elkarreraginak eta prozesuak ezberdinak dira, eta haurarentzat hori guztia ezezaguna den eta inoiz esperimintatu ez duen zerbait gisa aurkezten da (Perez, 2010).

Idea horretan sakonduz, Rodríguezek (2009) ingurune berri horretara egokitzeke modua kontu handiz planifikatu behar dela aipatzen du, banakako arreta bermatuko duten baldintza materialak, denborazkoak eta pertsonalak ezarriz. Halaber, haur bakoitzaren prozesuarekiko errespetua eta familiekiko beharrezko komunikazioa ezarriko direla dio, egokitze-aldi horretan sor daitezkeen gatazkak afektiboki konpontzen lagunduz eta egoera traumatikoak saihestuz.

Bestalde, Jauregizarek (2012) hurrengo aipatzen du egokitze-aldiaren garrantziaren inguruan: “Azken urteotan, eskoletan egokitze-epe bat ezarri da, haurraren eta bere atxikimendu-irudiaren arteko banatze-prozesua errazteko asmoz” (26 or.). Zehazki, autore honek honela definitzen du atxikimendua:

Haurraren eta beste pertsona baten artean garatzen den lotura emozional berezia, denboran zehar mantentzen dena bien arteko interakzioari esker garatzen dena, eta elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasuna sortzen dituen. Atxikimendua bizitzaren lehenengo urtean zehar garatzen da eta haurraren eta haren zaintzaileen arteko harreman moten menpe egongo da. (3 or.)

Azkenik, Navasek (2016) jasotzen duen moduan, hezitzaile gisa giro seguruak eskaintzea garrantzitsua izango da egokitze-aldi hau egoki gauzatzeko. Izan ere, horren

bidez, haurren integrazio gaitasuna, borondatea, autonomia eta heldutasun afektiboa garatuko dira. Horiek egokitze-aldia egoki gauzatzearen hainbat onura izanik, eta ondorioz, horietan datza prozesu honen garrantzia.

Berez, azken ikerketek diotenez, estrategia metodologikoak eta didaktikoak behar dira ikasleei aukera emateko eskola-inguruetan beren egokitze-prozesuan aurrera egiteko eta dimentsio sozioafektiboaren garapenean hobetzeko; izan ere, dimentsio horrek ahalbidetuko die pertsonen arteko harremanak ezartzea, laguntasun-loturak estutzea, beren burua ezagutzea eta besteak onartzea errespetuaren eta elkartasunaren jarraibideen arabera (Martinez et al., 2020). Horrez gain, maila kognitiboko eta afektiboko aldaketa-etapa bat dela jasotzen dute, eta, prozesu horretan, hezitzaileek zein gurasoek zuzenean eragiten dutela diote, horiek baitira eskola-prozesuaren lehen urratsetan haurrek izaten dituzten lehen esperientzien bitartekariak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ukaezina da egokitze-aldia eskolatze prozesuan duen garrantzia eta hezitzaile taldeak landu beharreko alderdi nabarmena izango da. Era berean, familiarekiko elkarlana sustatu behar da prozesu hau ahalik eta hoberen gauzatzeko.

1.3. Haurrak bizi dituen emozioak

Aipatu lez, haurra egokitze-aldian egoera berri baten aurrean aurkitzen da. Honetan, Leónnek (2009) aipatzen duen moduan, erabateko protagonista izateari uzten dio, eta gelakideekin banatu behar du rol hori, nagusiki, jarrera negatiboak sorraraziz. Izan ere, egokitze-aldi honetan, jarrera moldatuak edo moldatu gabekoak ager daitezke. Jarrera moldatu gabeak, Benítez eta Checak (2011) jasotzen duten moduan, umea ingurune berri edo desberdin batera egokituta ez dagoenean ematen dira arreta erakartzeko eta desadostasuna kanporatu edota adierazteko xedez. Aitzitik, jarrera moldatuak umea ingurune horretara egokitu dela erakusten duten ekintza horiek lirateke.

Jarrera moldatu gabeak hurrengoak izango ziren: negar egitea, ama noiz etorriko den behin eta berriz galdetzea, irakaslearen (umeentzat ezezagunak diren pertsonak) zaintzak ez onartzea, besteekin ez erlazionatzea ezta parte hartzea, etxeko objektu bati atxikituta egotea edota etsipena zein agresibitatea erakustea (León, 2009). Halaber, Jauregizarrek (2012) haurrek banatze horretan erakutsi ohi dituzten bestelako moldatu

gabeko jarrerak hurrengoak direla aipatzen du: larritasuna, portaera erregresiboak (atzamarra hurrupatzea, berriro pixa gainean egiten hastea), jan edo lo egin nahi ez izatea edota etxetik jostailu bat ekarri nahi izatea.

Aitzitik, jarrera egokituak Leónnek (2009) aipatzen dituen hurrengo ekintzak izango lirateke: gainontzeko ume zein nagusiekin harremanak izatea, gelako objektuak manipulatzeko, harentzat egokitutako espazio berri eta erosoarekin erlazionatzea, edota ikasketa egoera atseginak bizitzea.

Orobat, Sánchezek (2007) haurra eskolara egokitu dela erakusten duten zenbait adierazle goraiatzen ditu. Hain zuzen ere hurrengo hamar adierazleak aurkezten ditu: lehena, haurra berdinaren taldearekin eta erreferentziako helduarekin harremanak izateko gai izatea da, bere emozioak beldurrik gabe adieraziz. Bigarrena, agresibitatea edo isolamendua jarrera egokituagoengatik ordezkatzeko da. Hirugarrena, eskola-orduetan atxikimendu-irudia antsietatez ez itxarotea da. Laugarrena, gelako espazio guztia erabiltzea eta ikastetxean erraz mugitzea da. Bosgarrena, ikasgelara etxeko gauzak eta jostailuak eramatea da. Seigarrena, eskolan atxikimenduzko irudiaren presentzia onartzea da, etengabeko hurbilketa-fisiko eskatu gabe. Zazpigarrena, eskolara joateko desira-portaerak aurkeztea da. Zortzigarrena, ikaskideei eta irakasleei modu positiboan hitz egitea da. Bederatzigarrena, arauak onartzea eta gelan ezarritako errutina batzuk jarraitzea da, espazio berrian autonomiaz mugituz. Azkenik, hamargarrena, bere eskola erakusteagatik eta senideek espazio berriak ezagutzeagatik poza sentitzea litzateke.

1.4. Gurasoen bizipenek, jarrerak eta heziketa-estiloek duten eragina

Espinosaren (2016) hitzetan, gurasoak ere egokitze-aldetik igarotzen dira; funtsean, beren haurrarendik bereizten ari direla sentituko dute, eta hezitzailearen, haur-zentroaren, jarraituko diren prozesuen eta irakaskuntza-prozesuaren inguruko beldurrak eta zalantzak sentituko dituzte. Hala ere, garrantzitsua izango da gurasoek haurrari segurtasun eza ez transmititzea, horrek egokitze-prozesua zailduko bailuke. Ildo honetatik, Leónnek (2009) aipatzen duen lez, gurasoek sentimendu horiek gehiegizko kezka zein larritasuna bezalako adierazpenen bidez transmititu ahal dituzte eta seme-alabek horiek hautematean, inkontzienteki, modu negatiboan erantzuten dute. Hau da, gurasoek une hori zailtasunez bizi badute, haurrak ere antsietatez biziko du; eskola arriskutsua eta segurua ez dela sentituz.

Hori dela eta, Espinosak (2016) umeak prozesu hau arrakastaz gainditzeko hezitzaileak eta familiak elkarri laguntza ematea onena izango litzatekeela azaltzen du. Horretarako, hezitzaileak gurasoei jarraibide argiak helaraziko dizkie egokitzapen hau ahalik eta hoberen gauzatu dadin, bereziki, gurasoen eskolarekiko jarrera positiboak sustatuz eta honekiko larritasuna ekidituz. Aitzitik, prozesu hau gauzatzekoan, haurrak baina baita familiak ere bizitzen ari diren egoera berrira ere egokitzen ari direla gogoratzea garrantzitsua izango da. Hori kontuan izanda Gutiérrezek (2009) familiek dituzten jarrerak bitan sailkatu zituen: laguntzaileak direnak eta oztopatzen dutenak.

Egokitzapena errazten duten jarrerak hainbat dira; besteak beste, haurrari egun horretan eskolan zer egingo duen eta noiz jasoko duten azaltzea; ikastetxearen inguruko mezu positiboak transmititzea; haurra uztean lasaitasun irudia eskaintzea; irakaslearekin harreman adiskidetsuak eta laguntzaileak ezartzea; ikaskideekiko harreman pertsonal positiboak bultzatzea, haien izenei, jokoei eta abarri buruz galdetuz; irakaslearekin zalantzak, kezak eta proposamenak partekatzea eta ordutegi, arropa, elikadura, higiene eta abarri buruz ezarritako arauak betetzea (Gutiérrez, 2009).

Aitzitik, Gutiérrezek (2009) jasotzen duen moduan, egokitzapena zailtzen duten jarrerak engainatzea (“Oraintxe nator, ogiaren bila noa” bezalako esaldiak esanez); ikastetxea mehatxu gisa erabiltzea (“Eskolara zoazenean, lelokeria hauek amaituko zaizkizu” bezalako ideiak azaleratuz); gurasoek haurra leku ezezagun batean uzteagatik urduritasuna erakustea; haurra zainduko duten pertsona heldu berriekin lehiakortasuneko edo kontraesaneko harremanak ezartzea; lehenengo harremanetan “muturra sartzea”, gainontzeko haurrak etiketatuz eta eraso-defentsarako jokabideak erakutsiz; eskola eta familia bereizitako bi tokitzat hartzea, bakoitza bere arauen arabera zuzenduz; arau horiek eskola-erakundearen beharrei soilik erantzuten dietela eta banakako irizpideen arabera hautsi daitezkeela pentsatzea lirateke.

Aurreko jardute horiek gurasoen heziketa-estiloekin erlazio estua daukate, zehazki aurkitu ahal ditugun gurasoen heziketa-estiloak lau dira, eta horiek, haurren sozializazio, integrazio eta egokitzapen prozesuan eragina izango dute. Hori kontuan izanda, Sánchezek (2007) jasotzen dituen gurasoen heziketa-estiloen hurrengo definizioak berreskuratu dira:

Lehen heziketa estiloa **autoritarioa** da, hauek kontrol- eta eskakizun-maila handiak dituzte, eta komunikazio zein afektu esplizituko mailak apalak dira, gainera,

errefortzu-zigorretan oinarritzen dira, beldurra sustatuz eta portaera arazoak eraginez, taldean egokitzea eta integratzea zailduz. Bigarrena, **demokratikoa** da, guraso hauek komunikazio, afektu, kontrol eta heldutasun eskakizun maila handiak dituzte. Horri esker, seme-alabek autokontrol- eta autoestimu-maila altuak dituzte eta egoera berrien aurrean (egokitze-aldia) ekimenez zein konfiantzaz jarduten dute; ez dituzte baztertze-jarrerarik izaten. Hirugarrenak, guraso **permisiboak** dira, kontrol eta heldutasun eskakizun gutxi, baina komunikazioan eta afektuan maila altua daukate, haurren autokontzeptua eta autoestimua indartuz. Aitzitik, ezin dituzte ekintzen ondorioak aurrean (ez dituztelako arau argirik) jokabidearen autorregulazioa zailduz eta beste umeekin ezartzen dituzten harremanak erreboltariak, oldarkorrak eta heldugabeak izanik, baita egokitze-aldian zenbait arau eta errutinen barnerapena ere zailduz. Azkenik, guraso **indiferenteak** daude, ez dizkiete umeei haien jokabidea erregulatzen lagunduko dieten arau eta muga argirik ezartzen. Haur hauek nahiko oldarkorrak dira hiru urte dituztenean, eta kasketak bezalako portaerak ere erakutsi ohi dituzte. Azkenik, egokitze-aldiari aurre egiterakoan, haien adin bereko umeekin edota familiakoak ez diren beste heldu batzuekin harreman sozialak izaterakoan zein arauen aurrean axolagabekeria erakusten dute, jolasen eta elkarrekintzen talde-dinamika orokorra oztopatuz.

Harira bueltatuz, Mataren (2004) arabera, haurrak ez daude bakarrik egokitze-prozesuan, gurasoak ere igarotzen baitira prozesu horretatik beren seme-alaba eskolaurreko mailara sartzearekin zerikusia duten aldaketak onartuz eta haietara egokituz. Ildo beretik, Muñozek (2009) aipatzen du, gurasoek eragin handia dutela une horretan. Egiazki, beren semearen edo alabaren egokitzapena, neurri handi batean, gurasoek nola onartzen duten bereizketa, beldurrak, itxaropenak edota antsietatearen arabera; hartu duten erabakian izan duten segurtasuna edo segurtasun falta; eta haurren aukeretan eta aukeratutako ikastetxearen bermeetan duten konfiantza-mailaren arabera mugatua egongo da. Sentimendu horiek gurasoek transmiti ditzakete gehiegizko kez karen, larritasunaren eta abarren adierazpenen bidez eta adierazpen horiek semeak edo alabak hautematen ditu, inkontzienteki modu negatiboan erantzunez.

1.5. Irakaslearen rola

Irakasle hitzak, Gutiérrezek (2009) aipatzen duen moduan, hezkuntza arloko pertsona kualifikatua adierazten du, zehazki, irakaslana profesional gisa betetzen duena. Irakaslearen zeregina hezkuntza-prozesuko garrantzitsuenetarikoa da, berak zuzentzen baitu ikasle-talde baten ikaskuntza, bere eginkizun nagusiak hurrengoak izanik: hasteko, testuinguruaren, ikasle taldearen zein haur bakoitzaren berariazko ezaugarriak ezagutu beharko ditu, egoeraren azterketaren bidez beharrak hautemateko. Gainera, haurren garapena afektiboki babestu beharko du, beren posibilitatetan segurtasuna eta konfiantza eskainiz. Horrez gain, ikasleei erronka intelektualak proposatuko dizkie, arazoak planteatuz eta horiek konpontzen lagunduz, haur guztien parte hartze bateratua bultzatzen duen heinean. Era berean, egokitze-aldian, egin beharreko jarduerak, espazioaren antolaketa eta abar programatzeaz arduratuko da. Horrez gain, gurasoekin harremanak izan beharko ditu. Egiatan, irakasleak familiak eskolan duen inplikazioa bultzatu behar du, ikasgelan eta ikastetxean garatzen den hezkuntza-prozesuan parte hartzera bultzatuz.

Halaber, Leónnek (2009) irakaslearen eginkizunetako bat gurasoei lasaitasuna eta segurtasuna ematea dela aipatzen du. Era berean, hezitzaile-taldearen antolaketa zein familiaren inplikazioa eskolako prozesuan, eta bizitzan oro har, funtsezkoa dela dio. Aurretik ikusi dugun lez, gurasoek eskolan konfiantza izatea funtsezkoa izango da umeei hori nabaritu dezaten eta egokitze-aldia behar den bezala gertatu dadin. Hori kontuan izanda, autore horrek irakaslea familiekin behin baino gehiagotan harremanetan jarri behar dela dio. Horretarako, ikasturtea hasi aurretik, gurasoak eskolara hirutan (sarrera-plaza eskatzean, lehen bilera orokorrean eta elkarrizketa pertsonala egiteko momentuan) hurbilduko direla aipatzen du. Baina, hortik aurrera, harremana mantendu behar dela dio, bilera orokorren, banakako tutoretzen eta abarren bidez baliatuz.

Bestalde, gurasoekiko ezarri beharreko harremana alde batera utzita, Gutiérrezek (2009) egokitze-aldian ikasleek irakaslea ezagutu dezaten eta harengan segurtasuna eta konfiantza har dezaten, hezitzaileak zenbait jarduera garatu beharko dituela dio. Besteak beste, hurrengo ekintzak proposatzen ditu: ikasleei txokoetako jolasetan laguntzea, baina aske joka dezaten utziz; arauak eta horiek betetzearen garrantzia azaltzea, baina segurtasuna eta afektua transmitituz; haurren zein hezitzailearen izenekin jolastea, abestuz, errimak sortzen, baxu/ altu/ pozik/ triste esaten; abestiak eta olerkiak erakustea; edota ipuinak kontatzea.

1.6. Egokitze-aldiaren antolaketa

Ulertu beharra daukagu eskolara sartzeak erronka berri bat suposatzen duela haurrentzat, egoera berri askori aurre egin behar dietelako (ikasgela berria, ikaskide berriak, irakasle berria...) eta egoera horiei aurre egiteko moduek, eragina izango dute etorkizunean eskolan garatuko dituzten harremanetan eta honekiko ikuspegian. Hori dela eta, egokitze-aldia atsegina izan dadin, modu egoki batean antolatu behar da. Horretarako, lan honetan, autore ezberdinen proposamenak aztertu dira (Espinosa, 2016; Ibáñez, 1992; etab.). Baina, finean, Moyaren (2021) proposamena hartu da oinarritzat, honek informazio osatuena eta gaurkotuena eskaintzen baitu. Autore honen arabera, egokitze-aldia ikasturtea hasi aurretik antolatu behar da, eta hori egiteko, pautak orokor batzuk eskaintzen ditu, nahiz eta hau egiteko modu bakarra ez dagoenik baieztatzen duen, eta eskolaren zein ikasleen ezaugarrien arabera moldatu beharko den denboraldia dela adierazi. Hona hemen berak emandako jarraibideak:

Lehenengo fasea: Ikasturte hasiera baino lehen

Gurasoek seme-alabek baino lehenago ezagutuko dute eskola, haurrak inskribatu behar baitituzte eta orduan izango dute ikastetxearekiko lehen harremana. Ostean, lehenengo bilera gauzatuko da. Honetan irakasle- eta zuzendaritza-taldeak parte hartuko dute eta honen helburua Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua zein egokitze-aldia zertan datzan azaltzea izango da. Honekin batera, prozesu hau modu egokian gauzatu behar dela ere azpimarratuko zaie, eta horretarako udan gauzatzeko zenbait iradokizun eskaini ahal zaizkie haurra, psikologikoki, eskolan sartzeko prestatzeko. Horrez gain, ikastetxe askotan, lehenengo bilera horren ondorengo egunetako bat adosten da gurasoek hurrekin batera hiru urteko klasea bisitatzeko, lehenengo hurbilketa egiteko xedearekin. Halaber, jardunaldi irekietan edo ikasturte amaierako jaietan parte hartzera ere gonbidatzen zaie.

Bigarren fasea: ikasturte hasiera

Bigarren fase honetan beste bi bilera gauzatzen dira, lehena elkarrizketa pertsonala izanik. Batzar honetan, gurasoek irakaslearekin elkarrizketa bat izaten dute, eta bertan umeari buruzko informazio interesgarria biltzen da eta alde aurreko txosten-fitxa bat betetzen da. Bertan, ikasleen eta familiaren datuak, ohiturak, historia klinikoa, gustuak, jokabide garrantzitsuenak, eta abar jasotzen dira. Egiazki, informazio hau jasotzea garrantzitsua izango da ikasleen beharretara egokitzeko eta ikasleak

hurbiltasunez zein adeitasunez tratatu ahal izateko. Haatik, aipatu beharra dago, elkarrizketa pertsonalerako hainbat eredu daudela, eta, gaur egun, ikastetxe askok gurasoek formulario digital bat betetzea aukeratzen dutela. Nolanahi ere, hau irakasle taldeak adostu beharreko erabakia da.

Bigarren batzarra aldiz, etapako bilera orokorra du izena, eta hau, ikasturtea hasi baino egun batzuk lehenago antolatzen da. Guraso-bilera horren helburuak hurrengoak lirateke: Lehenik eta behin, ikasleen sarrera mailakaturik antolatzea, talde ezberdinak ezarriz. Bigarrenik, ikastetxeko bizikidetzak, funtzionamendu eta antolaketa arauak ematea. Eta azkenik, familiak ikastetxeko jardueretan eta beharretan parte hartzeko eta laguntzeko aukerak planifikatzea.

Hirugarren fasea: Lehen egunak ikasleekin

Bukatzeko, Moyak (2021) aipatzen duen bezala, haurra gurasoengandik denbora luzez urrun egon ez dadin, komenigarria izango da ikastetxera joateko lehen egunak modu koherentean antolatzea hurrengo ideiak kontuan hartuta: egunero berariazko irizpide batzuei jarraituz aukeratutako ikasle talde txiki bat sartzeko (adibidez, jaiotza-hilabetea). Orobat, talde batek eskolan emandako denbora pixkanaka handitzea eta azkenik, autore honek gogoratzen digun moduan, aditu batzuek gomendatzen dutenaren arabera, lehen eskola-egunetan haurraren atxikimendu-irudia gelan egotea komenigarria izan daiteke.

1.7. Prozesua errazteko jarraibideak

Aditu ezberdinek prozesua errazteko gomendio desberdinak ematen dituzte. Hala ere, guztiek zaintzen garrantzia azpimarratzen dute. Izatez, haurra zaindua eta seguru sentitu behar da egokitzapen prozesua egoki garatu dadin. Egia da, Briones eta Corrales (2012) jasotzen duten moduan, egokitze-aldiaren lehen fasean (protesta-fasean) umeak hezitzaileak eskaintzen dizkion zaintza zein arreta errefusatu ditzakeela, baina pixkanaka horiek onartzen joango da, hauek onartzeak, benetan egokitu delako adierazle bihurtuz.

Bigarrenik, objektu trantsizionalak aipatu behar dira. Hauek Donald Winnicotten aurkikuntza dira, eta autore horrek bere “Realidad y juego” (1972) liburuan azaltzen duen moduan, objektu horiek haurraren trantsizioa errazteaz arduratzen dira. Izatez, amarekin bat eginda dauden egoera batetik, harekin kanpoko eta bereizitako harremana

izatera igarotzen direlako. Orduan, objektu-trantsizionalak garrantzia eskuratuko du, objektu horrek ama (atxikimendu irudia) irudikatuko duelako eta pertsona hori urrun dagoenean objektua umearen segurtasun iturri bihurtuko da. Honengatik guztiagatik, Robalinok (2017) adierazten duen moduan, umeak jostailuren bat edo oso maite duen objekturen bat eraman nahi badu, hori egiteko aukera eman beharko genioke. Izan ere, horrek segurtasuna emango dio, eta, pixkanaka, egokitu ahala, objektua kenduko zaio.

Bestalde, zenbait autorek gelan gurasoak sartzea gomendatzen dute (bereziki lehen egunetan). Planteamendu horren oinarria, gurasoek haien seme-alabak eskolara konbentzimenduz, konfiantzaz, lasaitasunez eta ilusioz eraman ditzatela da. Izan ere, aurretik aipatutakoaren arabera, gurasoen jarrera haurren egokitze-aldian eragin handia izango du. Horregatik, Thió eta Llenasek (2007) azaltzen duten moduan gurasoentzat gelan sartu eta espazioak pertsonalki ikusi ahal izatea, haurrek egiten dituzten jarduerak egiaztatzea, seme-alaba zaintzen duten pertsonekin hitz egin ahal izatea zein gainerako haurrak eta familiak ezagutzea lagungarri izango da, batik bat segurtasun eza eta kezkek desagerrarazteko. Halaber, Robalinok (2017), haurrak bere lanaldia ezagutzeari garrantzi handia ematen dio, hots, autore honen arabera, umeek familiek zer ordutan jasoko dituzten jakin behar dute. Izan ere, haientzat garrantzitsua izango da haien bila bueltatuko direla eta hori noiz gertatuko den jakitea.

Azkenik, egokitze-aldian irakaslearen jarrera zein rolaren garrantzia azpimarratu beharra dago. Izan ere, hezitzailearen jarrera funtsezkoa izango da haurren egokitzapena aproposa izan dadin. Hortaz, hurrengo lerroetan, egokitze-aldia ondo garatzeko, irakasleak bete beharreko zereginetan sakonduko da, horiek prozesua asko erraztu ahal baitute, eta horretarako, Ibáñezek (1992) hainbat ideia aipatzen dira. Hasteko, autore horrek, eskolako helduek umeekiko oso adi egon behar direla dio, haurrak behatuz, detektatuz eta aztertuz. Horrez gain, hezitzaileak familiarekin harremanetan jarri behar direla aipatzen du. Era berean, irakasleak ikasleak eskolatik kanpo nola bizi diren eta umeen beharrak edota interesak zeintzuk diren ezagutu behar dituela azaltzen du. Hortaz, haurra eta bere testuingurua ezagutzea oso garrantzitsua izango da egokitze-aldia egoki burutzeko.

Bigarrenik, gelaren giroaren inguruan, Ibáñezek (1992) estu elkarlotzen diren bi gauza aipatzen ditu. Lehena, errespetuzko, afektuzko eta lasaitasunezko klima sortu behar dela da, eta hori lortzeko xedez, bizikidetzako oinarritzako arauak ezartzea

garrantzitsua izango dela dio. Zehazki hurrengo laurak aipatzen ditu: besteak errespetatzea, besteei laguntzea, materialak, jokoak zein objektuak partekatzea eta jarduera komunitan parte hartzea. Ildo horretatik, gogoratzen digu ziklo horretan ezinbestekoa dela giro bero, eroso eta segurua sortzea, haurrak bere ingurunea pixkanaka ezagutzeak dakartzan erronkei aurre egin diezaien. Egiazki, horri esker ikaslearen esperientzia bultzatu, garatu eta heldu egingo da, hezkuntza prozesu autonomo eta immanentea gauzatzen duen heinean. Hortaz, bigarren ideia ikaskuntza autonomoa gauzatu dadin gelatik erosotasunez mugitu behar direla da. Izan ere, haurrak, askotan, testuingurua ezagutzen ez duenean, leku batean geratzen da eta horregatik irakaslearen jomuga material zein jolas motibagarriak eskainiz haurrari gelan zehar mugitzeko ausartasuna eta ziurtasuna helaraztea izango da.

Ildo horretatik, autore ugari jolasen garrantzia nabarmentzen dute. Esaterako, Navasek (2016) jolasa haurrari plazera eta entretenimendu-uneak emateaz gain, haurren garapenaren osagai desberdinak estimulatzeko eta eskatzen dituen jarduera bezala definitzen du. Gainera, agertoki horretan, haurrek haien aukerak neur ditzakete bizitzako esparru askotan eta horri esker, gaitasun kognitiboak abiarazten ditu, umeari ingurunea ulertu eta pentsamendua garatzeko aukera ematen baitio.

1.8. COVID-19 egoeraren eragina egokitze-aldian

Muzok (2021) jasotzen duen moduan, COVID-ak eragindako pandemiak aldaketa handiak eragin zituen pertsona guztien bizimoduan. Baina, bereziki, hezkuntzan aldaketa nabariak aurrera eramane ziren, izan ere, ikasleen eta irakasleen kutsatzea saihesteko hainbat prebentzio-neurri hartu behar izan ziren; besteak beste, eskolak ixtea eta etxetik ikastea.

Hala ere, Sánchezen (2021) ikerketari erreparatuz, gurasoek ez dutela sumatu osasun-krisiak haien seme-alaben aldardean eraginik izan duenik adierazi da. Aitzitik, giza-trebetasunen alderdian pandemiaren eragina nabaritzen dela dio. Egiazki, konfinamenduan, haurrek ez zuten haien berdinekin egoteko aukerarik izan eta horrek “gelditze” bat eragin du gizarte-trebetasunak (komunikazioa, enpatia, lankidetzeta edo autokontrola) eskuratzeko eta praktikan jartzeko prozesuan.

2. Helburu eta Hipotesiak

Aurreko informazio guztia kontuan hartuta, lan honen bidez frogatu nahi ziren hipotesiak hurrengoak izan dira:

2.1. Gurasoei zuzendutako inkestari lotutako helburu/hipotesiak

Gurasoek egokitze-aldiari buruz duten jarrera, inplikazioa eta asebetetze maila aztertu.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gurasoek egokitze-aldia garrantzitsutzat jotzen dute eta orokorrean pozik daude jarraitutako prozedurarekin. 2. Gurasoen parte hartze txikia egokitze-aldian eskolarekiko mesfidantza edo segurtasun eza eragiten du. 3. Eskola eta bertako profesionalak gehiago ezagututa gurasoek jarrera positiboagoa dute.
Gurasoek eta umeei egokitze-aldian bizi dituzten sentipenak/ bizipenak ikertu.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gurasoek eta haurrek antzeko sentimenduak izango dituzte. 2. Gurasoek prozesu hau beldurrez bizi dute, eta nahigabe hori transmititzen diote haien seme-alabei.
COVID-19 egoerak haurren egokitzean izan duen eragin posiblea aztertu.	Gurasoek haien seme-alaben egokitze prozesua aurreko belaunaldiena baino latzagozat jotzen dute.

2.2. Hezitzaileei zuzendutako elkarrizketekin lotutako helburu/hipotesiak

Irakasleek egokitze-aldiari ematen dioten garrantzia eta horri eskainitako tartea ikertu.	Hezitzaileek egokitze-aldia garrantzitsutzat jotzen duten arren, egutegiak zehaztutako asteak baino ez dizkiote eskaintzen.
Egokitze-aldian ager daitezkeen zailtasunak aztertu.	Umeei beldurra, larritasuna, negarrak, etab. erakutsiko dituzte. Horrenbestez, maitasuna, laguntza edota testuinguru berri honekiko segurtasuna/lasaitasuna transmititzea funtsezkoa izango da.
Gurasoek egokitze-aldian duten parte hartzea ikertu.	Hezitzaileek gurasoen parte hartzea oinarritzotzat jotzen dute egokitze-aldia ondo gauzatu dadin.

<p>COVID-19 egoerak egokitze-aldian zein ikasleen egokitzapenean eraginik izan duen aztertu.</p>	<p>COVID-19 egoerak eragin nabaria izan du, ez baitaude aurreko belaunaldiak bezain ohituak ezezagunak diren haur/nagusiekin harremantzera.</p>
--	---

3. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko baliatu den metodologia mistoa izan da, izan ere analisi kuantitatiboak zein kualitatiboak egin dira aztertu beharreko informazioaren arabera.

Alde batetik, metodologia kuantitatiboa analisi estatistikoan oinarritzen den prozesua da. Horretarako jarraitzen den prozedura informazioaren bilketa ordenatua eta sistematikoa gauzatzea da, finean neurketa objektiboa egiteko (Cárcamo, 2005). Hori dela eta, guraso askori zuzendutako galdetegia aztertzeko metodologia kuantitatiboa baliatzea hobe litzatekeela erabaki zen.

Beste alde batetik, Euskaltzaindiak (2022) kualitatibo hitza honela definitzen du: “Nolakotasunari dagokiona”, hau da, zerbait nolakoa den aztertzen duen metodologia litzateke. Ildo horretatik, Cárcamok (2005) datuen analisi honetan faktore indibidualak garrantzi handia izango duela dio, hau gauzatzeko informazioaren deskripzioa eta interpretazioa egin behar baita. Horrenbestez, elkarrizketetan iritzien edota informazioaren deskripzioa egin dutenez, metodologia kualitatiboa erabili da.

3.1. Laginaren deskribapena

Aipatu berri denez, ikerketa hau bitan banatzen da, alde batetik gurasoei zuzendutako inkesta kuantitatiboa, eta bestalde, irakasleekin izandako elkarrizketa kualitatiboak. Lehenengo lagina 70 gurasok (58 emakume eta 12 gizon) osatzen dute, gehienbat ikastetxe kontzertatuko ikasleen aitak eta amak izanik (%68,6 itunpekoetakoak, %28,6 publikoetakoak, %2,9 pribatuetakoak).

Bigarren laginari dagokionez, 0-6 urte bitarteko etapan lanean dauden 7 irakasle ezberdinek parte hartu dute, guztiak emakumezkoak. Haatik, haien lan testuingurua ezberdina da (%71,4k itunpeko eskoletan lan egiten du, %14,3k eskola publikoetan eta %14,3k haurtzaindegi publikoetan).

3.2. Instrumentuak

Gurasoei zuzendutako galderak biltzeko erabili den instrumentua Google Forms-en bidez sortutako inkesta bat izan da. Aipatu beharra dago, galdetegi hau euskaraz eta gazteleraz idatzita dagoela, ikerketarako aztertutako zonaldea erdalduna delako, ondorioz, guraso askok ez dakite euskaraz edo haien ezagutza murriztua da. Inkestaren atalei dagokionez, bi bereizten dira: lehenengoan guraso bakoitzaren datu orokorrak jasotzen dira (adina, generoa, seme-alaba kopurua/adina eta eskola eredua). Bigarren zatiak, aldiz, 15 baieztapen jasotzen zituen eta gurasoek horiekiko adostasuna edo desadostasuna adierazi behar zuten 1etik (erabat desados) 5erainoko (guztiz ados) eskala baten bidez. Galdetegi honen bidez bildu den informazioa hiru multzotan sailka daiteke. Lehenengoa, egokitze-aldiari buruzko jarrera, inplikazioa eta asebetetze maila; bigarrena, familien emozioak eta bizipenak eta hirugarrena COVID 19 egoeraren eragina (ikusi I. eranskina).

Baliatutako bigarren instrumentua galdera-sorta bat izan da. Honek erantzun irekia eskatzen zituzten 7 galdera biltzen zituen, eta irakasle bakoitzarekin bildu, elkarrizketa grabatu eta transkribatu egin zen geroxeago hainbat ondorio ateratzeko. Solasaldiaren bidez jasotako informazioa lau atal desberdinetan sailka daiteke: lehena, egokitze-aldiaren garrantzia eta eskainitako denbora tartea; bigarrena, egokitzeko zailtasunak; hirugarrena, gurasoen parte-hartzea, eta azkena, COVID-19 egoeraren eragina (ikusi II. eranskina).

3.3. Prozedura

Behin instrumentuak prestatuta izanik, galdetegiak pasatzera eta elkarrizketak aurrera eramatera ekin zaio. Galdetegia, eskolako posta elektronikoaren bidez eta whatsapp taldeen bidez ere zabaldu da; ahalik eta pertsona gehien jaso eta bete dezan. Inkesta hau hiru asteetan zehar zabalik egon da eta erantzun nahiko jaso ostean itxi da.

Aitzitik, elkarrizketak aurrera eramatea zailagoa izan da, prozesu hau ezberdina izan delako. Hasteko, lan honen autoreak azken praktikak egiten ari den ikastetxeko Haur Hezkuntzako irakasleekin bildu, galdera batzuk egiteko baimena eskatu eta, onartu ondoren, emandako erantzunak jaso eta transkribatu egin dira. Prozesu honetan zehar irakasle horiek ahalik eta erosoan egotea bilatu denez, nahiago zuten hizkuntzan (euskaraz edo gazteleraz) erantzuteko askatasuna izan dute, gazteleraz jasotako erantzun horiek euskaratu egin dira haien hitzei ahalik eta leialenak izateko saiakera eginez.


Halaber, irakasle batzuek haien testigantzak grabatzeko baimena eman dute eta beste batzuen iritziak, aldiz, paperean jaso dira, baina betiere galdera bakoitzean nahi duten guztia erantzuteko aukera emanez, haien iritzia ez baldintzatzeko. Prozesu bera eskola horretatik at lan egiten duten beste irakasleekin aurrera eramatea espero zen, baina finean ordutegi bateraezintasuna dela kausa, galderak emailez jaso behar izan dira.

4. Emaitzak

4.1. Gurasoei zuzendutako inkesten emaitzak


Inkestan parte hartu duten 70 pertsonen *egokitze-aldiari buruz duten jarrera, inplikazioa eta asebetetze maila aztertuz*, %74,3k egokitze-aldia garrantzitsutzat jotzen dutela ikusten dugu. Gainera, horietatik %71,4k eskola aurretik ezagutzen zuela adierazi du. Eskolarekiko harremanarekin jarraituz, inkestatuen %92,9k irakaslearengan konfiantza duela adierazi du. Bestalde, %97,2k haien seme-alabek irakaslearekin eta gainontzeko umeeekin erlazio ona dutela adierazi dute (ikusi III. eranskina).

Nire seme-alabaren irakaslearengan konfiantza daukat.



1. Irudia: 2. Baieztapena


Nire ustez egokitzapen aldia garrantzitsua da haurrak eskolan ondo moldatzeko.



2. Irudia: 3. Baieztapena


Egokitze-aldian jarraitutako prozesuaren balorazioari erreparatuz, %68,5 jasotako informazioarekin eta jarraitutako prozesuaren alde agertu da eta %82,9k irakasleak emandako garrantzia eta gauzatutako jarduerak egokitzapena gauzatzen laguntzen duela adierazi du. Hala ere, %43,4k prozesu honetan nahi beste parte hartze izateko aukera izan ez zuela adierazi du.

Egokitzapen aldia nahi nuen beste inplikazioa izateko aukera izan dut.




3. Irudia: 4. Baieztapena

Pozik nago eskolak egokitzapena gauzatzeko jarraitu duen prozesuarekin eta jasotako informazioarekin.




4. Irudia: 5. Baieztapena

Irakasleak egokitzapen aldiari duen behar beste garrantzia ematen dio eta aldi horretan zehar egindako jarduerak egokitzapenean laguntzen dutela deritzot.




5. Irudia: 6. Baieztapena

Bestalde, *gurasoek zein umeez izandako sentipenak/ bizipenak aztertu* dira, lehenengo eta behin, gurasoek ikasleei helarazten dizkieten emozioak eta mezuak zeintzuk diren aztertuz. Gurasoen %90k ezinegona edo kezka sentitu arren, haien umeen aurrean ez erakusten ahalegintzen dela adierazi du, ildo horretatik, %91,4k eskolarekiko segurtasuna transmititzen ahalegintzen dela adieraziz. Emozioei dagokionez, gurasoen baieztapenei jarraituz, bereziki lasaitasuna eta poza bizi dutela ikus dezakegu, nahiz eta tristura eta beldurra ere bigarren maila batean nabaritu dituzten. Haatik, haurrengan gehien nabarmendu den emozioa poza izan da, baina bigarren hauen kasuan, lasaitasuna, tristura eta beldurra maila parekideak izan dituzte. Azkenik, prozesu hau hainbat haurrentzat latza izan daitekeen arren, gurasoen %95,7k adierazi dute ez dituztela haurrak sariekin konpentsatzen ahalegintzen (ikus III. eranskina).




6. Irudia: 7. Baieztapena



7. Irudia: 10. Baieztapena


Azkenik, bizi berri dugun *COVID-19 egoerak haurren egokitzapenean izan duen eragin posiblea aztertzerako orduan*, %14,3k baino ez du honekiko kezka adierazi. Gainera, %70,5k haien seme-alabak, eskolara joan aurretik, beste haurrekin egotera ohituta zeudela adierazi dute, eta finean %67,1k aurreko belaunaldiekin alderatuz, COVID egoerak harreman gaitasunetan eraginik izan ez duela deritzotela aitortu dute (ikus III. eranskina).

COVID-19 larritzen nauden gertakizuna izan denez, haurra eskolara eramateak kezkatzen ninduen.



8. Irudia: 13. Baieztapena

Aurreko belaunaldiekin alderatuz (adibidez, nagusiagoak diren anai-arrebak) COVID-19 egoerak nire seme-alabaren harreman-gaitasunetan eragina izan duela deritzot, ez baitzegoen hainbeste umeekin egotera ohituta.



9. Irudia: 15. Baieztapena

Datu orokor horiek aztertu ostean, gurasoen konfiantzan eragin gehien izan ditzaketen aldagaiak prozesu hau bizitzeko moduan eragina badaukate aztertu da IV. eranskinetako taularen bidez. Hain zuzen ere, ikertutako aldagaiak eskola ez ezagutzea eta egokitze-aldian nahi beste parte-hartzeko aukera ez izatea izan dira. Horretan ikus daitezenez, emaitzak nabari okerragoak dira bi baldintza horietako bat betetzen duten gurasoetan. Kasu hauetan, irakaslearengan konfiantza maila txikiagoa ikusten da, eta hark emandako garrantzia eta proposatutako ariketak txarrago baloratzen dituzte; gainera, ez daude pozik jarraitutako prozedurarekin (bereziki, nahi beste inplikazioa izan ez duten gurasoen kasuan). Era berean, modu ezkorrago batean baloratzen dute seme-alabak gainontzeko ikasle eta irakasleekin izandako harremanak eta egokitze-aldiari emandako garrantzia nabarmen murrizten da.

Emaitzak ikusita, hobera egiten duen bakarra beldurra/ ezinegonaren transmisioa saihesteko ahalegin gehiago egiten dituztela da. Horrez gain, eskola ezezaguna izan arren, gurasoen %94,1k haien seme-alabei eskolarekiko segurtasuna transmititzen ahalegintzen direla adierazi du. Egiazki, inplikazioa era negatiboan baloratu duten gurasoek egokitze-aldiari orokorrean balorazio negatiboago bat eman diote; alabaina, eskola ezezaguna zuten gurasoek irakasleari buruz aritzen ziren baieztapenetan desadostasun handiagoa ezagutarazi dute.

4.2. Irakasleei zuzendutako elkarrizketen emaitzak

Inkesten emaitzak alde batera utzita, irakasleekin egindako elkarrizketatik ateratako erantzunak aztertu dira (ikusitako V. eranskina). Lehenik eta behin, *irakasleek egokitze-aldiari ematen dioten garrantzia eta horri eskainitako tartea ikertu* da elkarrizketaren lehen bi galderez baliatuz. Lehen galderak, egokitze-aldiaren definizioa eta honen garrantzia azaltzeko eskatzen zuen. Elkarrizketatu guztiak ados egon dira egokitze-aldia epe garrantzitsua delako ideiarekin “haurrek etxetik eskolara egiten duten

bidea da” (4. elkarrizketatua). Horrez gain, 6. elkarrizketatuak aipatzen du egokitze-aldia ez dagoela bakarrik umeei zuzenduta, izan ere, “familiek bere umearen zaintza ezezagun baten eskuetan utzi behar dute eta honek bere denbora behar du”. Tutoreak ere bere denbora behar duela ikasle berriak ezagutzeko aipatu dute: “bakoitzaren izaera, gustuak, harremantzeko ahalmenak, zailtasunak” (6. elkarrizketatua). Bestalde, zenbait hezitzailek aipatu dute egokitzapena ondo gauzatzen bada, ondorengo lana hobeto burutuko dela: “ondo egiten bada, kurtsoa ona izango da denontzat” (3. elkarrizketatua); “Egokitzapen ona egin duen umea pozik joango da egunero eskolara. Pozik joatea errazten du ondorengo lana” (6. elkarrizketatua).

Egokitze-aldiaren antolaketari dagokionez, elkarrizketatuen %57,1k bi asteko egokitzapena gauzatzen du, %28,6k aste bakarra eskaintzen dio eta %14,3k hilabete bat eskaintzen dio. Guztiek, pixkanaka, egokitze-aldian zehar haurrek eskolan ematen duten denbora tartea handitzen dela diote, baita ikasle kopurua ere. Bestalde, %28,6k egokitze-aldian zehar gurasoak gelan sartzen direla azaldu dute; hortaz, hauek pixkanaka gelatik aldentzeko prozesua ere gauzatu beharko dute. Ildo horretatik, 1. elkarrizketatuaren arabera, “aste hauek umeak eroso eta babestuta sentitu daitezen baliatzen dira”.

Bestalde, egiatan, elkarrizketatu guztiek esan dute egokitze-aldiari eskainitako denbora ez dela nahikoa haur guztiak egokitzeko. Hala ere, egokitzapenari eman beharreko denboraren inguruko iritzi ezberdinak dauzkate. Batzuen aburuz, egokitze-aldiari bi aste eskaintzea gehiegi da, izan ere, “negar egiten duenak aste batean zehar eta hilabete batean zehar egingo duelako. Hortaz, aste batekin nahikoa litzateke” (1. elkarrizketatua). Beste batzuek, aldiz, hurrengo adierazi dute: “Ume batzuekin denbora hau ez da nahikoa. Ume haiei, familiak ados badaude, denbora gehiago ematen diegu.” (5. elkarrizketatua).

Ildo horretatik, *egokitzeko zailtasunak* dituzten haurretan nabarmentzen diren jarrerengandik galdetzerakoan, ume bakoitzak bereak dituela adierazi dute, besteak beste, negarra, ez jolastea, apatia, lasai egoteko zailtasuna eta larritasuna. Egoera horiei aurre egiteko baliatzen dituzten estrategiak hurrengoak dira: “denbora gehiago eskaintzen diot, bera erlaxatzeko eta bion artean konfiantza egoteko” (2. elkarrizketatua), “maitasun gehiago eskaintzen edo estutasun gehiago eskaintzen ahalegintzen naiz, haiek erosoago eta hurbilago sentitzeko nagusiaren figura batetik eta

hainbesteko ezberdintasuna ez nabaritzeko, haien etxetik ikastetxera” (7. elkarrizketatua). Aitzitik, 6. elkarrizketatuak hurrengo adierazi du: “Batuetan, negar baten daudenean, ez du ezertarako balio umearekin elkarreragiten saiatzea. Ume bakoitza mundu bat da, bere beharrak eta berezitasunak ditu eta errespetatzen ahalegintzen gara”. Hortaz, ikus dezakegunez, egokitzeko zailtasunak dituzten haurrekin nabarmentzen den jarrera arreta gehiago eskaintzea den arren, batuetan haien tartea behar dutela ere gogoratu behar dugu.

Irakasleak bizi duen egokitzapenari dagokionez, guztiek aipatu dute haurrak oraindik ez dituztela ezagutzen eta hori “inpaktu handia” dela haientzat (7. elkarrizketatua). Izan ere, “andereño bezala, beti dago nolakoak diren edo nola erreakzionatzen duten ez jakitearen ziurgabetasuna” (5. elkarrizketatua). Ildo horretatik, 3. elkarrizketatuak egokitzapena oso hilabete gogorra dela argudiatu du hurrengo adieraziz: “gu ere prozesuan sartuta gaude eta ez da erraza, umeak txarto daude, ez dituzu ezagutzen, ez umeak ez familiak”. Hala ere, andereño guztiek, laguntza emanaz, haurrekin jolastuz, alaitasuna transmitituz eta behar duten denbora eskainiz elkarrekin egokituko direla adierazi dute.

Beste alde batetik, ***gurasoek gelan izan behar duten parte hartzearen*** inguruan galdetzerakoan bi jarrera nabarmendu dira, %28,6 gurasoek gelan sartzearen alde agertu dira eta gainontzekoak, aldiz, haien presentziaren kontra. Haatik, aipatu beharra dago, gehiengoak gelan sartzea gomendatzen ez duten arren, gurasoekin erlazio estua izan behar dela azpimarratzen dutela, batik bat, 1. elkarrizketatuak hurrengo esan zuen: “Nire ustez, gurasoen parte hartzea ezinbestekoa da, baina inoiz ez gelan sartuz. Hau da, arazo bat egotekotan, haiekin hitz egiteko konfiantza helarazi behar zaie (bai haiek zuri kontatzeko, bai zuk haiei kontatzeko) asuntua ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko”. Bestalde, objektu trantsizionalen erabilera irakasle askok onetsi egiten dute, egiazki, haien hitzetan “lagungarriak dira eta ez dute minik ematen, horregatik bai baliagarriak izan daitezke” (4. elkarrizketatua).

COVID-19 egoeraren eraginari dagokionez, irakasleek bi gabezia nabarmendu dituzte, bata hizkuntza arloan, eta bestea harreman-sozialen arloan. Hizkuntzari dagokionez, 1. elkarrizketatuak hurrengo baieztatu du: “nabaritzen da txarrago hitz egiten dutela eta izan leike musukoaren erabileraren ondorioa”. Harreman-sozialei dagokionez, 2. elkarrizketatuak esan du “zailtasunak dituzte umeekin harremanak

izateko. Nabaritzen da oso gutxi joaten direla parkera beste hurrekin”. Horrez gain, parkera ez joateak motrizitatean zein beldurretan ere eragina izan duela adierazi du 5. elkarrizketatuak. Halaber, konpartitzeko zailtasunak dituztela ere aipatu du elkarrizketatu honek, eta horren kausa, familien konpentsazio saiakerak izan direla deritzo, hau da, “etxean hainbeste denbora egon direnez irten gabe, askoz gauza gehiago eman dizkiete lasai eta pozik egoteko. Orain, eskolara joatean, zaila egiten zaie partekatzea eta “ez” bat jasotzea”.

Azkenik, prozesu hau hobetzearren zer proposatuko lukete galdetu zaie. Galdera honi erantzuterakoan, askok gurasoei aipu egin diete. Batzuek, gurasoekiko hurbiltasun gehiago izatearen alde apustu egiten dute. Beste askok aldiz, egokitzapena luzatzea ideia ona izango litzatekeela esan dute. Haatik, hori egitekotan zailtasun nabari bat agertzen dela aitortu dute: gurasoen ordutegiekiko bateraezintasuna. Hori guztia alde batera utzita, beste hezitzaile batek, lehen egun horietan laguntzaile bat egotea onuragarria eta mesedegarria izango litzetekeela goraipatu du.

5. Ondorioak

Ikerketaren emaitzak oinarritzat hartuz, orokorrean gurasoek egokitze-aldia garrantzitsua dela eta jarraitutako prozesuarekin pozik daudela ikus dezakegu. Hala ere, frogatu da gurasoentzat eskola ezezaguna denean edota nahi beste esku-hartze izateko aukera izan ez dutenean okerrago baloratzen dutela prozesu hori, eta irakaslearekiko konfiantza ere eskasagoa dela. Bereziki, nahi beste inplikazioa izan ez duten gurasoek prozesuarekiko erakutsi duten atsekabea nabaritzen da. Gogoan izan behar dugu, gurasoek ere egokitzapen prozesu hori bizi dutela eta haien errealitatea ere aldatzen dela, horregatik, hau ahalik eta eramangarrien egiten ahalegindu beharko ginateke. Horrekin batera, gogora ekarri behar dugu gurasoek epe hau gaizki bizi badute, haien seme-alabek berdin biziko dutela, nahigabe sentimendu ezkor horiek transmititzen dizkietelako (Espinosa, 2016; León, 2009; Muñoz, 2009). Horregatik, epe hau ahalik eta hoberen bizitzeko xedez, gurasoek eta hezitzaileek komunikazio estua izan beharko lukete eta agian esku-hartze gehiago izateko aukerak eskainitzea onuragarria litzateke, benetan, goian jaso den legez, autore batzuk aitak eta amak gelan sartu daitezen ere gomendatzen dute (Thió eta Llenas, 2007).

Bigarrenik gurasoek eta hurrek bizi dituzten sentipenak ikertzerakoan, grafikoek antza handia daukatela ikus daiteke, bien sentimenduak parekoak izango

zirela zioen hipotesia sendotuz. Halere, haserre eta beldur mailan haurrak gailentzen direla eta lasaitasunean gurasoak nagusitzen direla aipatu beharra dago. Baliteke, hau umeentzat guztiz ezezaguna den testuingurura egokitu behar izanaren ondorioa izatea, finean, hurrek ez dute ez eskola ez irakaslea ezagutzen; aitzitik, gurasoek lehen hurbilketa bat bizi izan dute ikastetxea ezagutzera joan direnean edota hezitzaileekin hasierako bilerak gauzaterakoan eta horrez gain, hurrekin konparatuz, gurasoek estrategia eta elementu psikiko sofistikuagoak dituzte euren egonezina kudeatzeko. Haatik, gurasoek haien beldurra haien seme-alabei transmitituko diotela zioen hipotesiari dagokionez, aitek eta amek, eskuarki, beldurra sentitu arren, beldur hori haien seme-alaben aurrean ez erakusten ahalegintzen direla adierazi dute. Are gehiago, eskolarekiko segurtasuna transmititzen saiatzen direla aditzera eman du inkestaturen gehiengoak. Egiatan, oso heldu gutxik adierazi dute eskolarekiko beldurra, baina, horien seme-alaben %60k eskolan sartzerakoan beldurra izan zuela adierazi dute; agian, kontzienteki ez transmititu arren, hurrek haien gurasoek bizi duten beldurraz/ezinegonaz jabetzen dira, eta horregatik emaitza hauek eskuratu dira. Egiazki, birgogoratu behar dugu Muñozek (2009) dioela gurasoek haien sentimenduak inkontzienteki helarazten dizkietela hurrei, eta horrenbestez, umeek modu negatiboan erantzuten dutela. Hortaz, hipotesia baieztatu den arren, hori ez gertatzeko ahaleginak egiten dituztela ikus dezakegu.

Inkestarekin lotutako hipotesiekin bukatuz, gurasoek ezeztatu egin dute COVID-19 egoerak haien seme-alaben prozesua latzago bihurtu duenik. Izan ere, haien umeak beste hurrekin egotera ohituta daudela, beraz, harreman-gaitasunetan aldaketarik nabaritu ez dutela aditzera eman dute. Gainera, gehiengoek jakinarazi dutenez, COVIDak ez du beldurrik/oztoporik suposatu haurrak eskolara eramaterakoan; hala ere, geroago azalduko den bezala, irakasleek ez dute gauza bera antzeman.

Irakasleen iritzien inguruan proposatutako hipotesiei helduz, hezitzaile guztiek egokitze-aldia garrantzitsutzat jotzen dutela frogatu da, eta egutegiak zehaztutako asteak baino gehiago behar direla ikasle guztiak egokitu daitezen. Aitzitik, afera horri aurre egiteko bi erantzun mahaigaineratu dituzte. Batzuek, egokitze-aldia luzatzearen alde apustu egiten zuten, beste batzuek, aldiz, egokitzapena aste bakarrean egitearekin nahiko litzatekela adierazi dute, lehen astean negar egiten duenak hilabete osoan negar egingo duela argudiatuz. Honek erakusten digu hezitzaile batzuek ez dutela ulertzen umeen psikologia, ezta garai honek hurrengan duen garrantzia. Azken batean, goian

azaldutakoari jarraituz, umeak bere burua testuinguru berri eta ezezagun baten aurrean aurkitzen du eta, gainera, protagonista izateari uzten dio, guzti horrek moldatu gabeko jarrera horiek eraginez. Hezitzaileak egoera horretaz jabetu beharko lirateke, horren zergatia ikertuz eta aurre egiteko baliabideak bilatuz, ez egoera normalizatuz.

Egokitzapenean umeen artean ager daitezkeen zailtasunei erreparatuz, batik bat, negarra, larritasuna, apatia eta lasai egoteko ezintasuna bezalako erreakzioak aipatu dituzte. Irakasleek adierazi dutenez, ikasle askok zailtasun horiek bizi dituzte gurasoengandik aldentzen diren lehen aldia delako, eta hezitzaile bezala, egoera horri aurre egiteko erabiltzen dituzten estrategiak denbora zein maitasun gehiago eskaintzea, konfiantza helaraztea, eta haien beharrak aztertu eta errespetatzea dira. Hortaz, hasieran planteatutako hipotesia bete dela esan dezakegu eta hori kontuan izanda irakasleek hau guztia pazientziaz hartu beharko dute, egiazki, prozesuan zehar normalak diren erreakzioak direlako eta, finean, haurrak ondo zein eroso sentiaraziz, denborarekin, denak edo ia denak ondo egokituko dira.

Irakasle oro ados egon dira egokitzapena (eta orokorrean ikasturtea) ondo ateratzeko gurasoen parte-hartzea funtsezkoa dela esaterakoan. Halere, gehiengoek aipatu dute gurasoak gelan sartzea ekiditu beharko litzatekeela. Horien aburuz, ikasleen aita zein amekin konfiantzazko erlazioa eratu behar da edozein arazo sortzekotan elkarri komunikatzeko eta konponbidea bilatzeko, baina eskola- eta familia-testuinguruak argi bereiziz. Egitan, marko teorikoan ikusitakoari jarraituz, gurasoen inplikazioa eta haiei lasaitasuna transmititzea funtsezkoa da eta autore batzuek hori lortzeko aitak zein amak gelan sartzea gomendatzen duten arren, hezitzaile gehienek ez dute hau egiten horrek egokitzapena zailduko duela argudiatuz. Agian, irakasleek hori erantzuten dute haientzat erosoagoa delako gurasoen presentziarik ez izatea (aztertuta, kritikatu ala baldintzatu sentitu daitezkeelako), baina ikerketen arabera gurasoak bertan egotea prozesua errazten edota laguntzen duela dirudi, nahiz eta prozesua luzatu.

Azkenik, COVIDak izandako eraginaren inguruan galdetzerakoan, hezitzaileek aldaketak nabaritu dituztela adierazi dute, batez ere, hizkuntza eta harreman-sozialen alorretan. Horrenbestez, egoera horrek eragin nabaria izan duela haurrengan eta haien egokitzapenean baieztatu dezakegu. Haatik, aurretik aipatu lez, honek ez du gurasoen iritziekin bat egiten. Hau gerta daiteke irakasleek haurrek ikasturte bakoitzean izan beharreko maila ezagutzen dutelako eta hori ez eskuratzean, okerragotze bat egon dela

behatu dezaketelako. Aitzitik, gurasoek ez dute hori egiteko aukerarik, umea maila indibidualago batean behatzen dutenez, ezin dituztelako konparaketa handirik egin.

Bestalde, lan hau aurrera eramaterakoan hiru muga nagusi agertu dira. Lehena, laginaren tamaina eta adierazgarritasuna izan da. Izan ere, bai inkestan, bai elkarrizketan, gizonetzkoen parte hartzea eskasa edo hutsa izan da. Horrez gain, jasotako erantzun gehienak eskola kontzertatuan diharduten pertsonenak izan dira, hezkuntza publikoaren errealitatea alboratuz. Bigarren zailtasuna, baldintzak ez direla ondo kontrolatu izan da, azken finean, irakasle batzuekin ezin izan zenez bilera gauzatu, horiek idatziz bidali zituzten erantzunak eta batzuk apur bat laburrak ziren. Azkenengo muga, lan hau aurrera eramateko lan honen autoreak sortutako inkestak erabili zirenez, estatistikoki balioztatu gabe zeudela izan zen. Hortaz, hobetze aldera, etorkizuneko ikerketei begira gomendagarria litzateke hauek kontuan izatea.

Dena den, lan honetatik ateratako emaitzak positiboak izan dira. Berez, irakasleek zein gurasoek egokitze-aldiarekiko duten jarrera zein prozesu hori nola bizi duten ikertu delako, orokorrean, emaitza baikorrak jaso. Gainera, COVIDak ikasleetan izandako eragina aztertu egin da. Ateratako emaitzak analizatu ostean, eta etorkizuneko ikerketei begira, interesgarria litzateke gurasoen inplikazioa hobetze aldera estrategiak ikertzea baita irakasleek hori egiteko eskaintzen dituzten baliabideak aztertzea, batez ere horrek egokitzapen aldia bizitzeko moduan duen eragina ikusita. Halaber, pandemiak eragindako zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak ikertu beharko lirateke.

6. Etika profesionala eta datuen babesa

Ikerketa hau aurrera eramateko bi instrumentu erabili dira: inkesta eta elkarrizketak. Gurasoei zuzendutako inkestari dagokionez, erantzun beharreko galderak agertu aurretik, lanaren eta datuen babesaren inguruko idatzi bat agertzen zen. Honetan ikerketaren helburu nagusia, parte hartzearen borondatezkotasuna eta konfidentziasuna azpimarratzen ziren, jasotako datu horiek anonimoki eta soilik GrAL hau garatzeko baliatuko zirela argituz (ikusi I. eranskina).

Bestalde, elkarrizketak gauzatu aurretik, irakasleei ikerketa hau aurrera eramateko galdera batzuk egiteko baimena eskatu zitzaion, lanaren helburuak azalduz eta haien borondatezkotasuna, anonimatua, zein haien datuen trataera konfidentziala izango zela bermatuz.

7. Bibliografia

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

Álvarez Romero, M. eta Jurado Ponce, C. (2018). *Didáctica de la educación infantil*. IC Editorial. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/106133>

Benítez Caceres, M. eta Checa Farinango, V. (2011). *La adaptación al medio escolar como incide en el comportamiento de los niños y niñas de tres años de los Centros sociales SOS de la Ciudad e Ibarra, en el periodo 2010-2011* [Lizentziatura-tesia, Universidad Tecnica del Norte].
<http://repositorio.utn.edu.ec/bitstream/123456789/1908/3/FECYT%201067%20TESIS.pdf>

Briones Cevallos, K. E., eta Corral Alarcón, P. E. (2012). *El período de adaptación y su incidencia en el equilibrio emocional de los niños y niñas del centro de educación inicial fiscal Gabriela mistral de la ciudad de Portoviejo durante el año lectivo 2012-2013*. [Lizentziatura-tesia, Universidad particular San Gregorio de portoviejo]
<http://repositorio.sangregorio.edu.ec/bitstream/123456789/1104/1/EDU-T1107.pdf>

Cárcamo, H. (2005). Hermenéutica y análisis cualitativo. *Cinta de Moebio. Revista de Epistemología de Ciencias Sociales*, (23) 204-216 or.
<https://revistaderechoeconomico.uchile.cl/index.php/CDM/article/view/26081/27386>

Espinosa Cevallos, P. (2016). *El período de adaptación y su influencia en el desarrollo socio-emocional de los niños y niñas de 2 a 3 años del centro de desarrollo infantil Guagua Kennedy de la ciudad de Quito en el año lectivo 2015-2016* [Lizentziatura-tesia, Universidad Tecnica del Norte].
<http://repositorio.utn.edu.ec/bitstream/123456789/5813/1/05%20FECYT%203006%20TRABAJO%20DE%20GRADO.pdf>

Euskaltzaindiaren hiztegia (2022). Kualitatibo. In *Euskaltzaindia - Real academia de la lengua vasca*.

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=kualitatibo&option=com_hiztegia&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Gervilla Castillo, Á. (2016). *Didáctica básica de la educación infantil: conocer y comprender a los más pequeños*. Narcea Ediciones.

<https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHU/46162?page=11>

Gutiérrez Porras, A. (2009). *El periodo de adaptación en el segundo ciclo de Educación Infantil*. Bubok Publishing S.L..

<https://es.scribd.com/doc/134368727/El-Periodo-de-Adaptacion-en-El-Segundo-Ciclo-de-Educacion-Infantil>

Ibáñez Sandín, C. (1992). *El proyecto de educación infantil y su práctica en el aula*.

Editorial La muralla.

https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=Mfmz1YOa4tMC&oi=fnd&pg=PA17&dq=periodo+de+adaptacion+en+infantil&ots=Xxy5cv9Atf&sig=30TF9yn5x6eQzWA6f_Z75bdstsl#v=onepage&q=periodo%20de%20adaptacion%20en%20infantil&f=false

Jauregizar Albonigamayor, J. (2012). Atxikimendua ulertzen hezkuntzaren ikuspuntutik.

Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena.

León González, S. (2009). ¿Por qué es necesario el período de adaptación en la educación infantil. *Innovación y experiencias educativas*, (15) 1-9 or.

<https://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2015/08/%C2%BFPor-qu%C3%A9-el-perido-de-adaptaci%C3%B3n.pdf>

Mata, H. (2004) *Vivencias de los padres durante el período de adaptación del niño al preescolar*. [Lizentziatura-tesia, Universidad Católica Andrés Bello].

<http://biblioteca2.ucab.edu.ve/anexos/biblioteca/marc/texto/AAQ0545.pdf>

Moya García, M., (2021). *El periodo de adaptación en Educación Infantil*. [Material docente, Universidad de Granada].

<https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/68540/T5.-%20DIGIBUB%20-%20Peri%CC%81odo%20adaptacio%CC%81n.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Muñoz Peralvarez, M. (2009) *El apego y el periodo de adaptación en la escuela infantil.*

<https://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2014/08/El-apego-y-el-periodo-de-adaptaci%C3%B3n-en-la-escuela-infantil.pdf>

Muzo Maliza, G. D. P. (2021). *Pautas metodológicas para el periodo de adaptación en los niños y niñas del nivel inicial II en tiempos de pandemia.*

[Lizentziatura-tesia, Universidad Técnica de Ambato].
http://repositorio.uta.edu.ec/bitstream/123456789/33327/3/INFORME%20FINAL_MUZO_GISSELA.pdf

Navas García, N. G. (2016). *Estrategias motivacionales para la adaptación al nivel educativo de los niños y niñas de 1 a 3 años del centro infantil del buen vivir" Dr. Enrique Garcés" de la ciudad de Otavalo, provincia de Imbabura, durante el periodo 2015-2016.* [Lizentziatura-tesia, Universidad Técnica del Norte].

<http://repositorio.utn.edu.ec/bitstream/123456789/5827/1/05%20FECYT%203026%20TRABAJO%20DE%20GRADO.pdf>

Ortiz Castillo, A. (2008) *La adaptación a la escuela infantil. Innovación y experiencias educativas,* (12)

https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_12/ANA_ORTIZ_2.pdf

Pérez Díaz, F. D. (2010). *El periodo de adaptación en la Educación Infantil. Publicaciones Didácticas,* (7), 189-195 or.

<https://core.ac.uk/download/pdf/235867109.pdf>

Robalino Barrera, J. P. (2017). *Adaptación escolar y desarrollo social. estudio en los niños del centro infantil del Buen Vivir "Francisco Chiriboga" Riobamba, período 2016* [Lizentziatura-tesia, Universidad Nacional de Chimborazo].

<http://dspace.unach.edu.ec/bitstream/51000/3947/1/UNACH-EC-IPG-CEP-2017-0032.pdf>

Rodríguez Pelegrín, I. M. (2009). *La importancia del período de adaptación en el alumnado de tres años: una experiencia práctica. Espiral. Cuadernos del profesorado,* 2(4), 26-33 or.

<http://repositorio.ual.es/bitstream/handle/10835/5664/893-3257-1-PB.pdf?sequence=1>

Sánchez Mazariegos, A. (2021). *Efectos de la pandemia del COVID-19 en la socialización infantil y el juego*. [Lizentziatura-tesia, Universidad de Valladolid].

<https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/49083/TFG-G4890.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Sánchez Rodríguez, E. (2007). *El período de adaptación a la escuela infantil*. [Doktore-tesia, Universidad de Granada]

<https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/1614/16792877.pdf>

Thió, C. eta Llenas, P. (2007). Pequeños y competentes: de las actividades cotidianas al aprendizaje de la autonomía. In M., Anton, S., Fusté, P., Llenas, L., Martín, F., Masnou, M., Oller, S., Palou, C., Thió (ed.), *Planificar la etapa de 0-6. Compromiso de sus agentes y práctica cotidiana*. (69-127 or.). Editorial GRAÓ.

[https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=s-B_kqRnPxwC&oi=fnd&pg=PA69&dq=Peque%C3%B1os+y+competentes:+de+las+actividades+cotidianas+al+aprendizaje+de+la+autonom%C3%ADa.+M.+Ant%C3%B3n+\(Coord.\)+Planificar+la+etapa+0-6:+compromiso+de+sus+agentes+y+pr%C3%A1ctica+cotidiana.+Barcelona.+Gra%C3%B3,+69-+124.&ots=9mwJYn_T85&sig=zanpuXe792MP7hjJim6k0idyRHA#v=onepage&q&f=false](https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=s-B_kqRnPxwC&oi=fnd&pg=PA69&dq=Peque%C3%B1os+y+competentes:+de+las+actividades+cotidianas+al+aprendizaje+de+la+autonom%C3%ADa.+M.+Ant%C3%B3n+(Coord.)+Planificar+la+etapa+0-6:+compromiso+de+sus+agentes+y+pr%C3%A1ctica+cotidiana.+Barcelona.+Gra%C3%B3,+69-+124.&ots=9mwJYn_T85&sig=zanpuXe792MP7hjJim6k0idyRHA#v=onepage&q&f=false)

Winnicott, D. W. eta Mazía, F. (1972). *Realidad y juego*. Gedisa.

http://files.usal-psicopatoinfanto.webnode.com.ar/200000283-a83cea9364/WINNICOTT_realidad-y-juego.pdf